



HEZKUNTZA SAILEKO LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIAREN 2022KO AZAROAREN 4KO EBAZPENA, 2023/2024KO IKASTURTEAN ORDEZKAPENAK EGITEKO IZANGAIEN ZERRENDAKO KIDEEN MEREZIMENDUAK BIRBAREMATZEKO URTEROKO PROZESUAN PARTE HARTZEN DUTENEK ALEGATUTAKO ARTISTIKO-JARDUERA BAREMATU BEHAR DUEN BATZORDEA ERATZEN DUENA.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2012ko abuztuaren 27ko aginduak, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetan irakasleen aldi baterako premiak betetzeko izangaien zerrenda kudeatzeari buruzko araudia onartzen duenak, 20. artikuluan adierazten duenez, urtero, eta ikasturteak bukatu aurretik, ofizioz egingo da zerrendetan dauden izangaien merezimenduen balorazio bat, aipatutako aginduan ezarritako irizpideen arabera.

“Merezimenduen baremoari “ buruzko I. eranskinean, eta Arte Dramatikoaren eta Dantzaren Goi-mailako Irakaskuntza Artistikoei dagokienez, hau adierazten da: Arte Dramatikoa eta Dantza espezialitateen berariazko merezimenduak barematzeko, batzorde barematzaileak eratuko dira; hauek, Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariaren ebazpen bidez izendatuko dira.

Aipatutako birbarematze-prozesuari hasiera eman behar zaion prozesua iritsi dela eta Arte Dramatikoaren eta Dantzaren Goi-mailako Irakaskuntza Artistikoetako espezialitateetarako artistiko-jarduera alegatzen duten izangaien merezimenduak barematu behar direla kontuan hartuta,

EBATZI DUT

Lehena.- Argitara ematea 2023/2024rako urteko birbarematze-prozesuan Arte Dramatikoaren eta Dantzaren Goi-mailako Irakaskuntza Artistikoetako espezialitateetarako aipatuko I. eranskineko 6. eta 7. ataletan aurreikusitako merezimenduak baloratu behar dituen batzordearen osaketa.

Bigarrena.- Batzordea kide hauek osatuko dute:

- Santos Palma Arnaiz (Ikastetxeen Zuzendaritzako Irakaskuntza Berezieta Zerbitzua).
- Itziar Isasi Otaola (Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzako Langile-hornikuntza Zerbitzua).
- Leire Agirregomezkorta Leanizbarrutia (Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzako Ikasketa Antolamenduko Zerbitzua).

Hirugarrena.- Interesatuak gorako errekurtsua jarri ahal izango diote Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari behin betiko ebazpen honen kontra, hilabeteko epean, ebazpena argitara eman eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

BLANCA MARÍA GUERRERO OCEJO
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA

Vitoria-Gasteiz, 2022ko azaroaren 4a